

Enara Barandiaran Agirre

A maila • 1 saria

Honako lerro hauek inork irakurriko ote dituen zalantzati, nondik hasiko galdezka nabil behin eta berriz, nola esan liburu horren aurrean zauden horri nor naizen ni. Maiz definitu gaituzte NAN zenbakiko zortzi zenbaki hutsez, baita arrotz suertatzen zaizkigun beste mila zenbakiz ere. Eta oraindik ez dute jakin nor garen. Akaso neureak bezain zeureak diren ondorengo lerro hauek gordeko dute ene izatearen zati bat, eta horrela, "Enara Barandiaran Agirre, hemezortzi urteko ordiziarra" deskribapen hotzaz haratago joan gaitezke. Hortaz, marko estu hau inposatzen digun gizartea kritikatzeko duen banako baten eskutik, nire eskerrik zintzoenak hau irakurtzen ari den orori.



HIZKIAK ZENBAKIAK BAINO

Existentziaren mugak hain dira perfektu
non zenbakia izateak adierazten duen
zaren edo ez zaren,
nor zaren ala zer zaren
inor
ezer
akaso.

Baldin bazara,
nolakoa zaren,
edertasunak baduelako zenbakia,
baita adimenak ere.
Gaitasunak horren baitan neurtzen dira,
zenbaki egin baitzaituzte,
zenbaki sentitzen baitzara.

Zenbaki jaio eta zenbaki hezi.
Horiengatik eta horiekin epaitu zaituzte.
Neurria,
polita edo itsusia zaren zehazteko.
Pisua,
estetikaz gain osasun arazoak dituzun
edozeinek esan ahal izateko.
Nota,
azkarra edo tuntuna zaren adierazteko,

etorkizunean zer egiteko gai zaren
baimentzeko.
Eta zenbaki gehiago zu eta bera
gorrotatzeko,
mailak egin eta azpikoa zapaltzeko,
horretarako eskubidea eman edo kentzeko,
lehia sortzeko.

Horien aurka, sortu.
Utzi zenbakiak,
har itzazu hizkiak
eta jolastu.
Egin itzazu hitzak zure,
marraztu itzazu, gerora margotzeko
forma eman eta lotu
ondoren adierazteko.
Adierazteko zu,
nor eta nolakoa zaren.
Aldarrikatu ez zarela zifra,
pertsonek baizik.
Mailak desegin taldea osatuz,
guztien hitzak elkartu aurre egiteko,
zenbaki izateari uzteko.

Zenbakiak baino, hizkiak nahiago.